



IKTUS ISKEMIKO AKUTUAN ZAIN BARNEKO FIBRINOLISIA EGITEKO BAIMEN INFORMATUA CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA FIBRINOLISIS INTRAVENOSA EN EL ICTUS ISQUÉMICO AGUDO

A. IDENTIFIKAZIOA:

MEDIKU ARDURADUNAREN IZENA:
..... Data:

B. INFORMAZIOA:

Informazioa ematen dizun medikuak, artatzen zaituen mediku-taldearekin batera, ondorioztatu du zuk (edo zure senitartekoak) agertzen dituzun sintomak garuneko arteria bat (iktusa) hartzen duen odol-koagulu batek eragiten dituela. Horrek garuneko kalte itzulezina eta baliogabetzailea eragin dezake, garuneko odol-zirkulazioa lehenbailehen berrezarri ezean.

Gaur egun, tronbolitiko izeneko farmakoak daude, garuneko arteriaren bat blokeatzen duten koaguluak azkar disolbatzeko gai direnak.

Une honetan bi botika daude garuneko infartu akutuan erabiltzeko. Horietako bat alteplasa da. Lehenengo dosi bat zuzenean zainean ematen da, eta gero serum bat zainean ordubetez.

Beste farmakoa tenekteplasa da. Dosi bakar batean ematen da zainean, etengabeko perfusiorik gabe, 5 minutu baino gutxiagoan.

Biak onartuta daude garuneko infartu akutua tratatzeko. Artatzen ari zaizkizun neurologoek alteplasa edo tenecteplasaren erabilera kontuan hartuko dute zure irizpidearen arabera, baldin eta indikazioak betetzen badira eta kasu bakoitzean egokiak diren kontraindikazioak baztertzeko badira.

Esan bezala, botika horiek besoko zain baten bidez ematen dira. Horiek aplikatuta, haien bilakaera zainduko da hurrengo orduetan. Ospitalera iristean egin zaizun garun-eskanerraz gain, beste eskaner bat egingo da tratamendua eman ondorengo 22-36 ordu bitartean, zure egoera klinikoa ebaluatzeko eta konplikaziorik ez izateko. Ondoren, tratamendua egin ondorengo egunetan eta handik 3 hilabetera, eboluzioari jarraituko zaio.

A. IDENTIFICACIÓN:

NOMBRE DEL MEDICO RESPONSABLE:
..... Fecha:

B. INFORMACIÓN:

La/El médica/o que le informa, junto con el equipo médico que le atiende, han llegado a la conclusión de que los síntomas que usted (o su familiar) presenta están causados por un coágulo de sangre que ocluye una arteria del cerebro (ictus). Esto puede provocar un daño cerebral irreversible e invalidante, a no ser que se restablezca la circulación sanguínea en el cerebro cuanto antes.

Actualmente se dispone de fármacos llamados trombolíticos capaces de disolver rápidamente los coágulos que bloquean alguna de sus arterias cerebrales.

En este momento hay dos fármacos disponibles para su utilización en el infarto cerebral agudo. Uno de ellos es la alteplasa, que se administra primero una dosis inicial directamente en la vena y luego se continúa con un suero en la vena durante una hora. El otro fármaco es la tenecteplasa, que se administra en una sola dosis en la vena, sin necesidad de una perfusión continua, en menos de 5 minutos.

Ambos están aprobados para el tratamiento del infarto cerebral agudo. Las/os neurólogas/os que le están atendiendo considerarán el uso de alteplasa o tenecteplasa según su criterio, siempre que se cumplan las indicaciones y se excluyan las contraindicaciones oportunas en cada caso.

Como se ha mencionado, estos fármacos se administran a través de una vena del brazo. Tras la aplicación de los mismos se vigilará su evolución durante las siguientes horas. Además del escáner cerebral que se le ha realizado a su llegada al hospital, se realizará otro escáner entre las 22 y las 36 horas posteriores a la administración del tratamiento, para evaluar su situación clínica y descartar posibles complicaciones. Posteriormente se seguirá su evolución en los siguientes días y a los 3 meses tras el tratamiento.



BOTIKA EGOKIA:

Zure kasuan, arreta ematen dizun neurologoak egokitzat jo du tratamendua honakoa erabiliz egitea (markatu X batez dagokiona):

- Alteplasa.
- Tenekteplasa.

C. ARRISKUAK ETA KONPLIKAZIOAK:

- Odoljarioak: oro har, odoljario txikiak izaten dira (sudurra, gernua, azala), baina barne-organoei ere eragin diezaiekete, nerbio-sistema barne. Garuneko hemorragia sintomatikoa ager daiteke, gaixoen % 10ean morbiditatearen areagotze orokorrik gabe, nahiz eta kasu batzuetan ondorio larriak izan ditzaketen, baita hilgarriak ere.
- Konplikazio lokalak injekzio-puntuan, deserosoak edota gogaikarriak izan daitezkeenak.
- Oso gutxitan gertatzen dira beste albo-ondorio batzuk ere, hala nola tenperatura areagotze iragankorra, goragaleak, gorakoak, presio arteriala gutxitzea, exantema eta arnasbideak buxatzea.

OSPITALEAK BEHAR DIREN BITARTEKOAK IZANGO DITU PREST, GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK TRATATZEKO.

D. ESAN IEZAGUZU:

Halakorik baduzu, esan behar diguzu: medikamentuekiko alergia, koagulazioaren asaldurak, bihotz-biriketako gaixotasunak, protesiak, taupada-markagailuak, egungo medikazioa, edo beste edozein kontu; izan ere, arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna handiagoa izan daiteke haien eraginez.

E.- ARRISKU PERTSONALAK:

Egoera pertsonal jakin batzuek (80 urtetik gora) eta gaixotasunek (diabetesa, arteria-hipertentsioa, anemia, beste komorbiditate batzuk...) arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna areagotu dezakete. Zure medikuak arrisku espezifikoekin berri emango dizu.

FÁRMACO INDICADO:

En su caso, el neurólogo que le atiende ha considerado indicado el tratamiento con (marque con una X lo que corresponda):

- Alteplasa.
- Tenecteplasa.

C. RIESGOS Y COMPLICACIONES

- Hemorragias: en general suelen ser hemorragias menores (nariz, orina, piel) pero también pueden afectar de forma menos frecuente a órganos internos, incluyendo el sistema nervioso. Puede presentarse hemorragia cerebral sintomática sin aumento global de la morbilidad en hasta un 10% de los pacientes, aunque en algunos casos pudieran llegar a tener consecuencias graves, incluso mortales.
- Complicaciones locales en el punto de inyección que pueden ser molestas.
- Muy raramente ocurren también otros efectos secundarios como elevación pasajera de la temperatura, náuseas, vómitos, descenso de la presión arterial, exantema y obstrucción de las vías respiratorias.

EL HOSPITAL PONDRÁ A SU DISPOSICIÓN LOS MEDIOS NECESARIOS PARA TRATAR ESTAS POSIBLES COMPLICACIONES.

D. AVÍSENOS:

Es necesario que nos advierta de posibles alergias medicamentosas, alteraciones de la coagulación, enfermedades cardiopulmonares, existencia de prótesis, marcapasos, medicaciones actuales o cualquier otra circunstancia, ya que pueden aumentar la frecuencia o la gravedad de riesgos o complicaciones.

E.- RIESGOS PERSONALIZADOS:

Algunas circunstancias personales específicas (edad superior a 80 años) y enfermedades (diabetes, hipertensión arterial, anemia, otras comorbilidades...) pueden aumentar la frecuencia o gravedad de riesgos o complicaciones. Su médico/a le informará acerca de los riesgos específicos en su caso.



F.- ORDEZKO AUKERAK:

Zain barneko fibrinolisia da zure gaixotasunerako tratamendurik egokiena, betiere garaiz ematen bada. Bi aukerei uko egiten badie, Iktuseko Unitatean zainketa medikoak egitea edo trombektomia mekanikoa egitea izango dira aukerak, hala egitea komeni den kasuetan.

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa: interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak tratatuko dituela. Tratamendu HISTORIKO KLINIKOaren helburua da pazientearen historia klinikoko datuak izatea, haren jarraipena egiteko eta asistentzia-jarduera kudeatzeko, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betez. Datuak jakinaraz dakizkieke Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, GSINi, agintaritzak judizialei eta aseguru-erakundeek. Datuak interesdunak berak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetzako osasun-langileek emandakoak dira. Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere. Datuak babesteari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, <https://www.osakidetza.euskadi.eus/osakidetza-eus/-/datu-pertsonalen-babesa-osakidetzan/>


F.- ALTERNATIVAS:

La fibrinólisis intravenosa es el tratamiento más adecuado para su enfermedad, siempre que se administre precozmente. En caso de que rechace ambas opciones las alternativas serían los cuidados médicos en Unidad de Ictus o la realización de trombectomía mecánica en los casos en los que esté indicado.

Información básica sobre protección de datos: Se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Osakidetza – Servicio vasco de salud. La finalidad del tratamiento HISTORIAL CLINICO es la de disponer de los datos de la Historia Clínica del paciente para el seguimiento del mismo y la gestión de la actividad asistencial, conforme al cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento. Pueden realizarse comunicaciones de datos al Departamento de Salud del Gobierno Vasco, al INSS, a autoridades judiciales y entidades aseguradoras. Los datos proceden de la propia persona interesada, del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y de personal sanitario de Osakidetza. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento. Podrá ampliar información en materia de protección de datos en la siguiente dirección web: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/protecciondatos>

DOKUMENTU HAU SINATZEN DUT ONGI IRAKURRI OSTEAN ETA NIRE ZALANTZAK GALDETU ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN ONDOREN. BERAZ, ZER EGIN BEHAR DIDATEN ULERTU OSTEAN, ITXARON DAITEZKEEN EMAITZEN ETA HORTIK ERAGIN DAITEZKEEN ARRISKUEN BERRI IZAN ONDOREN.

FIRMO ESTE DOCUMENTO DESPUÉS DE HABERLO LEÍDO Y HABER TENIDO LA OPORTUNIDAD DE PREGUNTAR Y ACLARAR MIS DUDAS. POR TANTO, DESPUÉS DE HABER ENTENDIDO LO QUE SE ME VA A HACER, LOS RESULTADOS ESPERADOS Y LOS RIESGOS QUE DE TODO ELLO PUEDAN DERIVARSE.

Pazientea El/la Paciente	
Pazientearen izen-abizenak eta NANA Nombre, dos apellidos y DNI del/la paciente.
Sinadura/k eta data Firma/s y fecha
	

Medikua / El/La Médico/a

Medikuaren izen-abizenak eta elkargokide-zk.

Nombre, dos apellidos y nº de colegiado del o del/ la médica/o.
.....

Sinadura eta data

Firma y fecha

Legezko Ordezkarria: pazientea edo adingabea ezgaituta badago / Representante legal: en caso de incapacidad del/la paciente o menor de edad

Legezko ordezkariaren izen-abizenak, NANA eta ahaidetasuna

Nombre, dos apellidos, DNI y parentesco del/la representante legal.
.....

Sinadura eta data

Firma y fecha

Pazientearen edo legezko ordezkariaren ATZERA EGITEA / DESISTIMIENTO del/la paciente o representante legal

Ulertzen dut zenbaiterainoko irismena eta arriskuak dituen adierazitako prozedura EZ BETETZEAK. Eta baldintza horietan erabiltzen dut atzera egiteko eskubidea.

Comprendo el alcance y los riesgos de NO SOMETERME al procedimiento indicado. Y en tales condiciones ejerzo mi derecho de desistimiento.
.....

Sinadura eta data

Firma y fecha.....